

LIMAPUTZU

Itsasoko larreak

Argazkiak: LETXEZARRAGA



Wikiloc-en
topatuko duzu
ibilaldi hau

GnatKonekta



Sarbidea

Hondarribitik GI-3440 errepidea hartu Lezorantz goazela (Lezotik Hondarribira Jaizkibel gainetik), 13,5 kilometro puntuaren parean Guadalupeko Andre Mariaren ermita pasatu eta gero, eskuinetarantz irekitzen den hormigoizko pista hartuko dugu, zeinak baserri-merenderora eta Justitz golf eskolara ematen baitu.

Halaber, GI-3440 errepide hartu daiteke Pasaia eta Lezotik Hondarribirantz, eta 13. kilometro puntua igaro ondoren, goazela ezkerretan irekitzen den hormigoizko pista har dezakegu. Handik, lehen aipatu dugun Justitzeko merenderora irtengo gara.

Nabarmentzekoa da Lezo eta Guadalupe arteko GI-3440 errepidea lehendabizi «langileen batailo» eta, geroago, «soldadu langileen batailo» deituek eraikia dela: kontzentrazio eremuen araubidean preso zeuzkaten preso

errepublikanoak ziren nagusiki, erregimen frankistaren zerbitzura ziharduten egiazko esklaboak.

Zailtasuna eta errekerimenduak

Ibilbide honek 3,7 km ditu guztira, eta ez du batere zailtasunik. Halaber, ez du eskatzen ekipamendu berezirik, mendi ibilietarako oinetako eta arropa egokiak baino ez. Komeni da ura eta elikagai arinen bat eramatea. Halaber, hartu ahal dela

telefono mugikorra aldean, ezer gertatuko balitz ere.

Deskribapen laburra

Ibilbide osoa Hondarribiko udal mugartean igarotzen da, Jaizkibel mendiaren iparraldeko hegalean zehar eta itsasertzaren parean. Eremu horiek guztiak Natura 2000 sarearen Kontserbazio Bereziko Eremu gisa aitortuak dira.



LIMAPUTZU

Jaizkibel mendia, hasi gailurretik itsasoraino eta hegoaldeko isurialdearen zati bat barnean harturik, Natura 2000 sareko Kontserbazio Bereziko Ereku izendatuta dago 2004tik, Hondarribia, Lezo eta Pasaia udal mugarteetan.

Natura 2000 biodibertsitatea kontserbatzeko eremuen Europako sare ekologiko bat da. Haren helburua da mehatxurik handienak dituzten eta Europarako garrantzitsuak diren habitat naturalak eta flora zein fauna espezieak kontserbatzea, eta, hala, haien biziraupena bermatzea epe luzean.

Iberiar penintsulako ipar-ekialdeko muturrean ibiliko gara, edertasun paregabeko agertoki multzoetan. Ibilbidearen lehendabiziko zatia hormigoizko pista batean egingo dugu; ondoren lurrezko pista batean, eta, handik berehalaxe, kostaldeko bidezidorretan.

Kresalez blaitutako belardiak eta azalratze arrokatu nabarmenak zeharkatuz, itsasoaren erasoekin erritmikoki kolpaturiko itsaslabar basatien parean, Limaputzuko kala susmaezinera iritsiko gara. Olatuen biribildutako harri bolaz beteriko inguru honetan, itsasaldiak aukera ematen baldin badigu, uretatik sartu-irten freskagarri batez gozatu ahalko dugu.

Ibilaldi erakargarri honetan, larreak eta hareharri estratuak igaroko ditugu, kolore bizi-bizikoak eta erosioaren poderioz harturiko forma apetatsuz beteak. Ikuspegi harrigarri



eta dotorez eta agertoki basatiz beteriko ibilbidea egingo dugu; haiekin guztiekin, gure memoria emozio eta sentsazio susmagaitzez kargaturik geratuko da, bai horixe.

Ibilbidearen eta bertan topatzen diren elementu naturalen eta kulturalen deskribapena

Oharra: WP hizkiekin (ingeleseko waypoint-etik eratorriak) adierazten dira ibilbideko gako-puntuak, hala bidegurutze bat dagoelako, nola intereseko kokagunea delako. Eskuineko zutabearen jaso dira kokaleku horien argazkiak eta azalpenak.

Justiz baserriaren ezkerreko alboan ipinirik (WP 1), hormigoizko bi pistak bat egiten duten tokian eta hainbat haritz zaharren babespean, ezkerretarantz jaisten den bideari ekingo diogu. Haritzak, ametzak, erramuak, lizarrak, gaztainondoak,

Waypoint (WP)



1. Ezkerreko bidea hartu

gorostiak eta beste hainbat espezie izango ditugu bidean, sasiak eta beste hainbat zuhaixka arantzadun itxi-itxi direla: guztiak ere mendi hau oro har estaltzen zuen baso mistoko landaredi oparoaren lekuko.

Berehalaxe, bidean txertaturiko langa kanadar edo bidean



LIMAPUTZU

Hainbat aldaera badira ere, kontatzen dute Antso Gartzes II.a Iruñekoa eta Aragoiko kondea (938-994), Abarka goitizenez deitua, baliatzen zituen oinetako errustikoak zirela eta, ehizan ari zela zauritu zuen basurde bati jarraika, eta inguruotako neska gazte batekin topo egin zuela, hilzorian zen animalia hori ferekatzen.

Erregea txunditurik geratu zen neskaren edertasunarekin, eta «guztiz ederra» esan omen zuen. Topaketa horretatik seme bat sortu omen zen, eta erregeak haren etxeko eremurik garaienetik ikusten ziren lursail guztien titulartasuna eman omen zion neska gazteari. Eta halaxe sortu zen antza Justitz baserria.

txertaturiko parrila batera iritsiko gara, albo batean pertsonentzako pasabidea duela. Langa kanadarrak zulo baten gainean bereizita ipinitako barra sail batez osaturik egon ohi dira, eta mesfidantza sortzen dute abelburuetan eta beste hainbat animaliatan. Hala, ez dute zeharkatzen, nahiz eta aterik ez eduki ibilgailuak igarotzeko.

Saihestu egingo dugu parrila gainetik igarotzea, eta albo batean horretarako ipinitako langa baliatuko dugu. Hala, Marlako zelai zabaletan barneratuko gara. Eskuinetan, zati eder batean, saila gorosti arantzadunetz mugatzen duen itxitura baten alboan aurrera egingo dugu. Ezkerretan, arbolarik gabeko lursailak ikusiko ditugu, eta, une horretatik aurrera, ibilbide osoan bidelagun izango dugun itsas horizontea agertuko zaigu.



Larre zabal hauetan mantxa landatar ugari ageri dira, eta otea, garoa eta sasi bihurriak daude nonahi itxi-itxi. Garai bateko baso atlantikoa bota izanaren emaitza da, lurrok abeltzaintzarako erabiltzeko. Zelai horiek guztiak, abeltzaintzaren kargarekin ez ezik aldi-aldi sasiak mekanikoki garbituta ere mantentzen dira.

Abeltzaintza estentsiboa izan da Jaizkibel aldeko erabilera tradizioaletako bat, eta hala jarraitzen du izaten. Ereduotan larrean ibiltzen diren abelburuek,

karga handiegia ez bada behintzat, oreka gordetzen dute belardien, sasiaren eta basoen artean.

Mendiko abelburuok eragin zuzena dute basa faunaren gainean ere. Istripuz edo gaitzen batek jota mendian hiltzen diren buruen gorpuzkiak hamaikatxo espezie nekrofaqoren elikagai izaten dira -horien artean, sai arreen koloniak, zeinek Jaizkibel hegoaldeko arroketan egiten baitute habia-.



LIMAPUTZU

Bidean tipi-tapa goazela, ez da harritzekoa behor talderen batekin topo egitea larreak kimatzen, moxalak alboan dituztela. Eta ohikoa da artalde latxak topatzea ere. Animalia horiek aske aritzen dira larrean, eta ohiturik daude gizakiekin. Edonola ere, oso zorrotza dute defentsarako sena; hortaz, oinez ibiltzeko arazorik ez badago ere printzipioz –txakurrek beti lotuta joan behar dute haien inguruan–, gomendatzen dugu bakean uztea eta ez erakartzea jaten eman aitzakian, eta are gutxiago aztoratzea. Ez baitago aurreikusterik zer erreakzio izango duten.

Handik berehalaxe, hormigoizko plaza txiki batera iritsiko gara, zeinak garai bateko akuiferoen zundaketa baten ahoa gordetzen baitu (WP 2); handik, eskuinetara hartuta, Marlako artzain establezimendura abiatzen da. Aurrera jarraituko dugu lurrezko

pistan behera (kate bat dauka gurutzatuta ibilgailuei ez igarotzen ez uzteko).

Beheraxeago joanda, hormigoizko etxola batekin topo egingo dugu, hark ere garai bateko beste zundaketa bat babesten du. Puntu honetan, itsasertaren gaineko ikuspegi zoragarria dugu, eta landazabal giro hauetan ohikoa izaten da kalandriak, buztanikarak, birigarroak, txantxangorriak eta beste hainbat hegazti ikustea. Ezkerretara, Matxixako lurmutur sarkorra; Lekeitio, Ondarroa eta Mutrikuko herriguneak; Deba eta Zumaia arteko itsaslabar zilarreztatua... Aurrealdean, ozeanoaren zeruertz amaigabea, eta, gertuago, olatuak hausten dituzten bloke eta punten kaosa. Eskuinetara, Landetako urre koloreko lerroa. Hori bai hori ikuspegi bikaina!

Waypoint (WP)



2. Aurrera segi



3. Talaia bidera heltzean, ezkerreara



Aurrerantz jaisten segituko dugu sasiz osaturiko mosaiko itxien artean, eta, itsasertza hausten den punturaino iritsi ostean, Talaia ibilbide handiaren sareko bidezidor bati helduko diogu, belardian sarturik (WP 3), zeinak Hondarribia

eta Mutrikuko Saturraran hondartza lotzen baititu.

Agertoki geologiko ikusgarria izango dugu aurrez aurre: itsaslabar malkartsuak, estratu arrokatsuen handitasuna, arroken handitasun



eta biluztasuna, itsasoaren kolpe erritmikoak, itsas bitsaren bor-borra, kresal usaina... Zentzumen guztiak airean izango ditugu.

Momentu batzuez gozatu ondoren, gentozen moduan ezkerretara



LIMAPUTZU

hartuko dugu, eta zelaian profilatuta ageri den bidezidorrari jarraituko diogu norabide horretan. Berehalaxe, bideak harearri estratuetan behera zuzen egiten du, eta, handik pixka batera, egurrezko pasabide baten gainetik zeharkatuko ditugu Iturrain erreka ur garbiak.

Azpian, kostako estratuen artean mailakatuta, Aingiraputzu urmael berde-beltzak, hondoa Kapelu puntako harkaitza dugula. Natura basatiaren ikuskizun bitxi eta ikusgarria, inondik ere.

Ur emari opari hori gaingitu ostean, bide bihurtu aurrera segituko dugu, eta berriro ere harearri estratuetan gora joango gara; hala, egurrezko pasabide mailakatu batean, zohikaiztegi baten hustubidea gaingituko dugu. Eta, handik gutxira, Txortxipi deituriko berdingunean irtengo gara.



Jaizkibelgo flyscha hareharriz eta margaz tarteka osaturiko pakete lodiz osaturik dago, eta eozenoan sortua da, orain 45 milioi urte inguru. Geruzetan alternantzia erritmikoa duen edozer sedimentu sekuentziari deitzen zaio, oro har, flysch.

Geruza arrokatsu horien osaeraren jatorriari dagokionez, deposituen sedimentu metaketarekin eratuak dira, xafla forman eta ozeanoaren hondoko hainbat dentsitateko materialekin: ondoren, tolestu eta altxatu egin ziren Iberiar penintsulako eta Europako plaka tektonikoek talka egitean.

Kostaldeko lerroa, itsasoaren etengabeko jardunarekin, atzera egiten ari da etengabe. Atzeratze hori ez da berdina itsaslabar osoan, estratuen trinkotasunaren arabera. Estratu horiek gogorragoak eta trinkoagoak diren tokian, atzeratzea txikiagoa da, eta muturrak, puntak eta sarguneak eratzen dira. Hauskorragoak diren tokietan, berriz, kontrakoa gertatzen da: hau da, kalak, senadiak, golkoak, badiak eta abar sortzen dira.



5 de 8





Kostaldearen ertz-ertzean zintzilik, erosiaren emaitza diren berdingune belartsu hauek garbi ageri dituzte haustura zantzuak, eta aise ikusten da zer nola jausi diren itsasora eusten dituzten estratuak. Marlakoak bezalaxe, sasitza itxi-itxiak kolonizaturik ageri dira, eta, estaldura horren pean, kostako bateria baten obraren aurriak gordetzen dituzte, lurreko parapetoekin eta lubakiekin.

Anekdotak bitxi baten ondorio, zabalgunek hau Hondarribiko

lehendabiziko aireportu bilakatu zen. 1911ko udaberrian, Roland Garros pilotuak -haren ohorez ospatzen da izen bereko tenis txapelketa-, Paris-Madril hegazkin lasterketan parte hartzen ari zela Le Petit Parisien egunkariak antolatutik, premia lurreratu behar izan zuen berdeguneotan, erregai faltak eraginda. Inguru horretako auzotarrek Hondarribia aldetik ekarritako erregai botak ostean, antza denez zabalgunetik itsasertzerantz aieratu zen berriro ere, hegazkin ontzi bat balitz bezala.



Waypoint (WP)



4. Lurraren egoeraren arabera, eskailetak erabili

Bidezidorrak gidaturik itsasertzean aurrera eginez, urratsez urrats kostaldeko zeruertzak gozatuz, bat-batean etengo zaigu aurreko ikuspegia Biosnar tontor zorrotz askoaren harkaitz arranditsuekin. Irteguneko horrek olatuen kolpeetatik babesten du Xixurko senadia. Ere hori gabarren ainguraleku izaten zen garai batean, inguruotako harrobietan lortutako harearriko harlanduak ontziratzen zituztenean, baita babes bila iristen ziren beste hainbat ontzirena ere.

Handik pixka batera, ezkerretatik datorren bidezidorra albo batera utzi, eta eskuinetara hartuko dugu. Txortxipi harana barrenean dugula, aldapa handi batean beheara abiatuko gara. Otadi itxietan barrena jaitsiko gara, ametzak, haritzak, erramuak, gurbitzak, urkiak eta beste hainbat zuhaitz espezie inguruan ditugula, sastraka eta lahardi itxiak haietan sartzea galaraziz; mendiaren landaredi naturalaren lekuko dira horiek guztiak, zeina biziki zigortua izan baita beti arbolak botatzearen, artzaintzaren, suteen eta oro har gizakiaren jardunaren eraginez.

Bigarren pasabide mailakatu bat zeharkatuz (WP 4), Arlatz gainaren hormatzarraren parean, Txortxipi



LIMAPUTZU

Jaizkibel mendian zehar identifikatu diren aztarna arkeologikoen –batez ere iparraldeko hegalean agertu diren– ederki lekukotzen dute gizakiak mendi honetako natura baliabideei emaniko aprobetxamendua, hasi gutxienez orain 150.000 urtetik eta gure egunetara iritsi arte.

Gure ibilbidean oharkabean igaroko genituen beste aztarnategi arkeologiko batzuetatik aparte, Txortxipi haranaren amaierako zatira iristen garenean, babes arrokatsu zabal batean pean J-3 izeneko aztarnategia identifikatuko dugu. Bertan, Euskal Herriko giza hobiratze eta bizileku zaharrenaren

aztarnak eta hondarrak ageri dira, orain 8.000 urte ingurukoak.

Hain justu, 35 eta 40 urte inguruko gizonezko bat topatu zen fetu posizioan lurperatuta, 1,50 m inguruko garaierakoa, maskortegi batean bildurik. Lapen, muskuiluen, lanpernen eta itsas trikuen maskorren hondarrek eta babestoki honetan bizi izandako ehiztari-biltzaileen taldeek kontsumituriko bestelako ugaztunen aztarnak erakusten dutenez, biztanleok ez zituzten bitartekoak ehizatik bakarrik eskuratzen, eta, haietaz gainera, itsas baliabideak ere ustiatzen zituzten.

Waypoint (WP)



5. Limaputzuko kala



osinera jaitsiko gara lau pausotan, zeina erreka korrante garbi batek ureztatzen baitu etengabe.

la-ia landaririk gabe, itsas mihiluaren sorta berdeekin apaindurik daude haitz honetako zirriktuak. Landare jangarri hori –toki batzuetan limoi

deitzen diote euskaraz–, garai batean eskorbutoarekin kontra baliatzen zuten, eta oraindik ere badu estimaziorik sukaldaritzan.

Barrenean, Limaputzu kala agertuko zaigu ustez uste gabe (WP 5), denboraren poderioz eta itsasoaren



LIMAPUTZU

Flyscharen marga eta kareharri estratuek bananduriko zatietan zizelkatuak, a zer nolako ikuskizun ederra sortzen duten olatuen atzera-aurrera etengabeek, bai eta haien kolpeen eta joan-etorrien poderioz moldekatuak bloke horien biribiltasunak, neurriek, koloreek eta zainek ere! Erabat ohiz kanpokoak, begi zein belarrientzat.

kolpeekin moldekatuak harri bolaz josita; itsas agertoki berezia dugu, non, itsasaldiek aukerarik ematen badigute, uretatik sartu-irten freskagarri bat egin ahalko baitugu.

Inguruok eskaintzen diguten edertasunarekin zorutzen geratu besterik ez dugu, eta, agertoki hunkigarri eta ikusgarri honekin puzturik, egindako bidean atzera joango gara abiatu garen tokira arte.



Gogoratu mendia, basoa eta hondartzazaindu behar dituzula, errespetatu animalia eta landareak eta eraman sortutako zaborra etxera bueltan.



gipuzkoa.eus/eu/web/ingurumena/gnaturaldia/konekta

8 de 8

Gnaturaldia
konekta



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro